

## Euskobarçaren Gabonetako Loteria

Honen bitartez gure esker ona adierazi nahi diegu egoitzara etorri, loteria takoa eraman eta bera saltzeko ahalegina egin dutenei. Izan ere, begi bistakoa da loteria funtsezko oinarrietako bat dela penyaren egiturari, urteroko kontuek erakusten duten bezala; ekimen hori gabe EZ DA BIDERAGARRIA oraingo kuotekin penyari lokal eta guzti eustea.

Sariren bat suertatzen bazaigu, ez ahaztu CAIXA CATALUNYAn jaso behar dela, lehengo Jaun eraikinean (San Prudentzio kalean), eta ez Olagibel kaleko egoitzan, bertatik mugitu baitira. Ea iaz bezain zorte ona daukagun aurten ere. Gai honen inguruan kontrako informaziorik baldin badago, Penyaren web gunean adieraziko da.

### ORAINDIK LOTERIA KITATU EZ BADUZU... OSO GARRANTZITSUA

Loteria takoren bat eskuratu zutenei gogorarazi nahi diegu abenduaren 10a baino lehen egin behar dutela kitapena, eta txartelik soberan geratu bada ordurako itzuli behar direla. BEREBIKIZIKO GARRANTZIA DU, baten batek ez bata eta ez bestea ekartzen ez baditu, txartel horiek baliogabetzat jo litezke. Beraz, ez geroko utzi lana.

Eta oraindik loteriarik ez baduzu, etorri penyara, txartel batzuk baino ez dira geratzen eta.

## BAZKIDEEN KUOTAK 2008rako

Urte berriari begira, eta BOSGARREN aldiz jarraian, aldaketarik gabe jarraituko dute urteko kuotek. KPIren arabera eguneratzea aproposa eta etikoa izango balitz ere, oraingo penyaren finantza egoerak igoerarik ez egiteko aukera ematen digu.

### Hona hemen KUOTAK:

**HELDUAK - 2008 : 40 euro    HAURRAK - 2008: 6 euro**

FAMILIENTZAKO KUOTA: kuotaren %50 / Heldua: 20 euro – Haurra: 3 euro.

Oso garrantzitsua: Ordainketa, Izena adieraziz, hauetako batean egin:

**CAJA VITAL KUTXA: 2097-0153-29-0008042129**

**La CAIXA : 2100-1930-24-0200006766**

Txartela berritzeko nahiz bazkide berrientzako epea 2008ko urtarrilaren 31n amaituko da. Berritzea egiten duzuen guztiok ordainagiria hartuta penyara etorri baino ez duzue, eta Barçaren liburu bana jasoko duzue.

Otsailean egingo den Batzarrean ere Barçaren produktu sortak zozketatuko dira bazkideen artean.

BI HILABETEKO INFORMAZIO ALDIZKARIA *87. zenb.* 2007KO ABENDUA - 2008KO  
URTARRILA  
**EUSKOBARÇAREN INFORMAZIO ALDIZKARIA**



**P.B. VITORIA-GASTEIZ "EUSKOBARÇA"**

Uruguai k., 7-9 BEHEA    TEL/FAXa: 945-242562

WEB GUNEA: [www.euskobarca.com](http://www.euskobarca.com)    E-posta: [penya@euskobarca.com](mailto:penya@euskobarca.com)

## 2008 urte berri on

2007 urte honi azken hondarrak geratzen zaizkion honetan, aste banaka batzuen buruan bukatuko den urtearen azterketa besterik da falta.

Gure penyarentzat urte gogoangarria izan da, gure klubak titulu nabarmenik lortu ez duen arren. Urtarrilean gurera etorri zirenen bisitak bukaera ezin hobea eman zion gure Penyaren XV. Urteurrena ospatzeko ekitaldi sortari, 365 egun lehenago Bartzelonan hasitakoari. Urteko onena izan zen guretzat, jakina.

Kirol alderdiari dagokionez, erakutsi digu figurarik gabe ere badugula etorkizunik. Masia uzta oparoa ematen ari da; horren froga bikainen artean Bojan eta Dos Santos ditugu jadanik zelaian aitzindari; Messik eta Iniestak, berriz, duela zenbait urte hainbeste "figura" egonik ezinezkoa zirudiena gauzatzea lortu dute. Denborak argi utzi du arrazoi dutela, eta izango dutela. Erronka talde orekatua lortzea da, futbola maite dugunoi beste final bat jokatzearekin, oraingoan Moskun, amets egiteko aukera emango diguna. Maiatzean erantzuna.

Urtea bukatu aurretik, ordea, hitzordua dugu gure penyaren eta truke bidez jasotzen dugun beste penya batzuen loteriekin. Izan ere, abenduaren 22ko zozketak ilusio itzela pizten digu, gure taldeak bezainbeste segur aski. Egun bererako beste sari handi bat dago prestatuta, Barça eta R. Madriden arteko norgehiagoka; bien arteko aldea handitzeko parada emango digu partida horrek; arrastaka segitzen duen eta garai batean bezala barregarri geratzen ari den arren, bere presidenteak munduko talde onentzat daukan klubaren harrokeria kentzeko balio izango ahal du. Laster nabarmen geratuko da Bartzelonan, geure benetako armak ikusita.

Ohiturari jarraituz, abenduaren 26an, asteazkena, 2007 urteari agur esatera bilduko gara; aurten kirol hitzaldi eta otordu arin batekin hornituko dugu. Egun horietarako plan ona delakoan gaude. Ea 2007a hasi genuen bezain animatuta bukatzen dugun; 2008an ikusi arte.

## GABONETAKO LOTERIA – BARÇAKO PENYEN BATERAKO LOTERIA – 20 euro txarleleko

Berriz ere abian jarri dugu loteria molde hau...

Partaide bakoitzak kopuru bat jartzen du (aurten 20 euro), fondo bateratu batean jokatzeko duguna; berau parte hartzaile kopuruaren arabera aldatzen da, baina 600 € ingurukoa da. Barçaren hainbat penyaren loteria txartelek jokatzen dugu; hala Euskal Herriko penyak, nola Katalunia, Balear, Kantabria, Valentzia, Gaztela eta abarretakoek esku hartzen dute, eta loteria elkarri trukatzeko diogu. Sistema honi esker erraz daukagu zerbait berreskuratzea, beti botatakoa, sari txikiren bat edota, zergatik ez, handiren bat egokitzen da eta.

Aste bete lehenago, eta ia egin genuen bezalaxe, zenbakien zerrenda eta zenbaki bakoitzean jokatzen dugun kantitateena eskuratuko diegu parte hartzaile guztiei. Penyako iragarki oholean ere ikusgai egongo dira.

ZORTE ON-ONA GUZTIOI

**Fondo honetan izena emateko azken eguna abenduaren 12a da.**

*Izen-ematea Penyan bertan edota hauetako batean 20 € sartuz egin daiteke:*

CAJA VITAL KUTXA: 2097-0153-29-0008042129  
La CAIXA : 2100-1930-24-0200006766

*ARGI ETA GARBI ADIERAZI: FONDO + Izena  
Esan bezala, ezinbestekoa da FONDO hitza zein parte hartzailearen izena jartzea, izan ere, sariren bat eskuratzeko unean ez dute baliorik izango identifikatu gabeko ordainketek.*

*Gero, telefonoz, posta elektronikoz edota partiduren bat jokatu bitartean penyaren egoitzan jakinarazi, zerrendetan sartzeko.*

*Iaz PBB Meritxell penyaren sari txiki bat egokitu zitzaigun; lehenengo sariaren amaierako zenbakia izan genuen, eta horri esker jokatutakoa berreskuratu genuen, beraz, espero dezagun oraingoan ere jokatzen ditugun 20 euroak berreskuratzea.*

*Baten batek zenbakiak e-postaz bidaltzea nahi badu, ohiko helbidean eskatu besterik ez du.*

Penya bere web gunean  
[www.euskobarca.com](http://www.euskobarca.com)

## Panya Lagunen GABONETAKO LOTERIA

Baterako fondoaz gain, AZAROTik aurrera gurekin txartelak trukatzeko dituzten zenbait penyaren loteria izango dugu salgai. Ea horren laguntzarekin aberasten garen...

### GARRANTZITSUA

**Loteria hauetako batzuk ez daude penyaren BATERAKO FONDOAN sartuta, eta hortaz txartelka baino ez dira salduko:**

P.B. Irun (Gipuzkoa)	Txartel bakoitza 5 eurotan
P.B. Dos Rius (Bartzelona)	Txartel bakoitza 2 eurotan
P.B.B. Meritxell (Bartzelona)	Txartel bakoitza 2 eurotan
P.B. 100% (Bartzelona)	Txartel bakoitza 2 eurotan
P.B. L'ELIANA (Valentzia)	Txartel bakoitza 3 eurotan
P.B. Cuellerana (Segovia)	Txartel bakoitza 3 eurotan
P.B. ELS TAMARELLS (Mallorca)	Txartel bakoitza 2 eurotan

Barçak partidua jokatzen duen egunetan daude salgai, baita asteazkenetan ere, eta txartelak erosteko azken eguna abenduaren 12a izango da, lehenago penyaren batenak agortzen ez badira, guk egun horretan itzuli beharko baitugu loteria hau.

Eta badakizue, saldu gabeko loteria izaten da beti sarituta gertatzen dena...

## 2008ko INAUTERIAK

Lehenengo aldia izateagatik edo, gogo handiz aterako garela ematen du... Bai horixe, gure penyak datozen inauterietan esku hartuko du.

Zorionez, Laguntasuna elkartearekin bateratzeari esker gauzatu ahal izan dugu proiektua, eta ia ehun kide inguru izango gara otsailaren lehen asteburuan Gasteizko kaleetan zehar.

Orain eguraldia asteburu horretan lagun izatea besterik dugu behar; ikaragarri lagunduko liguke bi egun horietan, edo behintzat desfileak egiten direnean, euripean ez egoteak, benetan gure penya Gasteizko jai handi honetako partaide izan dadin.

Espero dezagun ateratzen garenok primeran pasatzea, eta datorren urteari begira EUSKOBARÇAKO bazkide gehiagok esku hartzea konpartsan.

Diario Sport egunkariak ere parte hartuko du, ekimen honen babesle gisa.

## Jose Alcalde, Ohorezko Lehendakari

Ekitaldiz jositako arratsalde batean, Jose Alcalde Moral EUSKOBARÇAren, Barçaren Vitoria-Gasteizko Penyaren Ohorezko lehendakari izendatu genuen ofizialki; hartara, bazkideen Batzar Orokorak pasa den 2007ko otsailean hartutako erabakia gauzatu zen.



Lehenik eta behin, esker ona adierazi genien 7ko FUTBOLEko Aranbizkarra taldeko jokalariei, gure ordezkariak izan baitziren F. C. Barcelonak lehenengo abuztuan antolatu zuen Txapelketan, eta ondo baino hobeto aritu baitziren.

4 mutil izan ziren, txapelketari buruzko beren ikuspegia eman zigutenak; Bartzelona eta Camp Nou zelaia ikusteko zuten gogo

zela eta, dena primeran joan zen.

Ondoren, Inauterietako konpartsaren aurkezpen ofiziala egin genuen.

Jarraian, Dani Benavidesen txanda izan zen; Onda Cero irratiko esatari eta kazetari hau gure penyako bazkide ohia da, eta ordu erdi pasatxoko mintzaldian Barçaren gaur egungo egoeraren berri eman zuen. Laborantzaren geratu zen bere jarduna, bera berritsu galanta baita, baina tarte eman behar genion gehienok bilduak gintuen ekitaldiari.

Ekitaldi xume batean EUSKOBARÇAko Bazkideen Batzar Orokoraren erabakia irakurri zen eta ondoren penyaren intsignia ezarri zitzaion Jose Alcalderi; halako saria jasotzen duen lehenengo pertsona da, 15 urte pasatxo hauetan egindako lanarengatik, beti ere Penyako zuzendaritza batzordeko kide gisa, esker onez; izan ere, aurreneko batzarretik, non boluntarioak eskatu baitziren, gaur egun arte, lan eskerga burutu du Jose Alcaldek, eta bera bezalakoei zor zaie penya dagoen tokian egotea.

Eta ekitaldi sortari amaiera bikaina emateko, hainbat pintxo goxo dastatzeko parada izan genuen.

Asko izan ziren Alcalderen omenaldira bildutakoak, eta beste hainbatek ere, urrutian egon arren, parte hartu zuten ospakizun honetan; ez alferrik, baliteke berau izatea penyako kide gehien batu dituen ekimena.

Guzti-guztiori mila esker gure penyaren ohorezko lehendakari berriari eta hedaduraz geure EUSKOBARÇAri adierazitako elkartasunagatik.

## Urte bukaera Penyan 2007ko abenduaren 26a, asteazkena

Azkenaldiko ohiturari jarraituz, urtea amaitu aurreko azken asteazkenean urteari agur esatera bilduko gara Penyako egoitzan, otordu arin baten bitartez.

Oraingo honetan, Dani Benavides kirol kazetari eta esatariaren bisita izango dugu berriz ere, futbol txapelketaren lehen zatiari buruzko bere iritzia eman dezan, Barça eta R. Madrid taldeen arteko klasikoa jokatu baino 4 egun lehenago bakarrik hain zuzen. Era berean, bertaritzen diren guztiei opariak emango zaizkie, eta giroa berotze aldera lehiaketa bat antolatuko dugu, Barçaren beste opari batzuk lortzeko aukera izan dezazun.

Beraz, gonbidatuta zaudete ekitaldira, honako egitaraua izango duena:

ABENDUAK 26, ASTEAZKENA

20:00- Hitzaldi-Mahaingurua, Dani Benavides kazetariaren eskutik

20:50- Otordua

20:55- Kirol Lehiaketa, Sariekin.

Zuen zain gaude, Penyaren egoitzan 2007 urte honi agur esateko... Eta Loteria suertatzen bada, mundiala antolatuko dugu, alajaina!

WEB GUNE berria  
[www.fcbarcelona.com](http://www.fcbarcelona.com)

Dagoeneko aste batzuk joan dira Barçaren WEB GUNE berria abian jarri zutenetik; bertan informazio eguneratuagoa, erreportaia hobek, sailak eta abar aurkituko dituzu.

Sail horien artean PENYEI eskainitakoa dago, non erakunde mailako informazioa eskaintzen den. Barçak dituen milatik gora penyei buruzko albiste guztiak ez daude jasota, baina klubak guri informazioa helarazteko bide ona da.

Aldiro aldiro Barçaren penya jakin bati buruzko erreportaia edo, hobeto esanda, haren aurkezpena egiten da, eta hil honetan geure txanda da. Guk bertan informazio berriak aurkituko ez badugu ere, KLUBaren web gune garrantzitsu honetan islatuta ikusiko dugu geure burua.

Badakizue, bada, web gunean sartu eta sail berria ikus dezakezue.

**Bidali posta elektronikoa bat zeure e-postako helbidearekin, oraindik aldizkari hau formatu digitalean jasotzen ez baduzu**

## EUSKADIKO Penyen III. TROBADA 2008ko urtarrilaren 26a, larunbata - DURANGO

Orain dela egun batzuk, Euskadiko penyen ordezkariok Durangon bildu ginen, geure jarduerarako interesgarriak diren hainbat gai jorratzeko.

Bilkuraren Gai Zerrendan F. C. Barcelonaren Euskadiko Penyen III. Trobada (topaketa) zegoen; ekitaldi hau bi urtetik behin antolatu ohi denez, eta azken edizioa 2006an bildu zela kontuan izanik, datorren 2008an Trobada biltzea zegokion.

Futbolari dagokionez EUSKADIKO kirol egoera nolakoa den ikusirik, ez genuen buruhauste handiegirik izan trobada noiz egin erabakitzeko unean, normalean futbol taldeak bisitatzen gaituenean egiten baita. Beraz, 2008ko urtarrilaren 26 edo 27an burutuko dela zehaztu zen.

Tokia zehaztea ere ez zen zaila suertatu behar. I. Trobada Irunen (Gipuzkoa) izan zen; II.aren antolatzailea, berriz, Gasteiz (Araba) izan zen; hortaz, III.a Bizkaian egin beharko zen. Gaur egun lurralde horretan bi penya aktibo baino ez daudela (Durango eta Ermua) eta antolatzeko gogoz bakar bat dagoela aintzat harturik, argi zegoen erabakia: 2008an DURANGO n egingo da.

Gasteiztik ordu erdiko tartean, “blaugrana” edo “culé” garenok egun handia gozatzeko aukera izango dugu; ekitaldi egitaraua oraindik zehazteko badago ere, ospakizun nagusiaren eskema taxutu dugu:

Futbol partidak baldintzaturik, eta 7-10 egun lehenago arte datu zehatzik izango ez dugun arren, egitaraua honelakoa izango da:

Ath. Bilbao-FCBarcelona partida LARUNBATEAN izango balitz:

BAZKARIA ANTOLATUKO GENUKE, eta horren ondoren, nahi duena edota sarrera duena, noski, San Mames zelaira joango litzateke.

Ath. Bilbao-FCBarcelona partida IGANDEAN izango balitz:

AFARIA ANTOLATUKO GENUKE.

Aurreikusitako ekitaldien artean Barçaren egutegi eta intsignien erakusketa bat eta SPORT egunkariak Barçako jokalariren batekin antolatuko duen mahainguru bat egongo dira. Era berean, ahaleginetan ari gara Barçaren euskarazko Himnoari ofizialtasuna emateko; Pello Ramirez gure bazkideari esker ezagutarazi ahal izan dugu euskal bertsioa.

EZINBESTEKOA da gure Penyak trobada honetan parte hartzea, berebiziko garrantzia baitu euskal penya guztiok bertan biltzeak; gure penya eredugarria izan behar da ARABAN, eta ugarienetako bat izanik, ezin gara ospakizun honetatik kanpo geratu.

Hori dela eta, bazkideak eta lagunak urtarrilaren 26an Durangon izatea sustatuko da. Autobusa edo mikrobusa osatzeko beste eskari badaude, penyak bere gain hartuko du gastua, eta bestela bertan izateko beste bide batzuk aztertuko ditugu.

Abenduaren bukaera aldera honen berri zehatzagoa izan nahi genuke, abenduaren 26ko Mahainguruan jakinarazi ahal izateko; edonola ere, Durangora joango direnen behin behineko zerrenda ireki dugu.

## Euskadiko Penyen Baterako Bidaia Barça – Vila-real, 2007ko martxoak 8/9

Gipuzkoako penyek autobus bat antolatuko dute martxoaren 8 edo 9an Barça-Vila-real partida ikusteko.

Bidaia hau egitekotan bazabiltza, guri jakinarazi besterik ez duzu, beharrezko gestioak egin ahal izateko.

## MUNDUKO TRODABA, L'HOSPITALET 2008 Apirilak 5-6 - Barça-Getafe

Eta hilabete geroago hasiera emango zaio penyen munduko “Trobadari”, L'Hospitalet-en; BARÇA eta GETAFEn arteko futbol partidarekin batera egingo da, eta larunbatean izatea aurreikusten da, penyakide mordo bat bertaratzea errazteko.

Euskadi bertan izango da, noski, eta autobusa antolatuko da ospakizun honetarako ere; euskal penya guztiak ordezkatuta egon daitezen saiatuko gara.

Hortaz, egiozu tokia zeure agendan ekitaldi honi, izan ere, asteburu bikaina igaro ahal izango duzu prezio merke baten truke, oso litekeena baita guztiok batera autobusaren eta sarreren salneurria merkeagoa izan dadin lortzea.

## Gogoan izan..... Agenda

EUSKOBARÇAren Gabonetako Loteria..... (abenduaren 11 baino lehen)  
Kanpoko Gabonetako Loteria / BATERAKO FONDOA (abenduaren 12a baino lehen)  
2007 urtea agurtzeko ekitaldia ..... (abenduak 26, asteazkena)  
Euskal Penyen “Trobada”, DURANGO 2008 ..... (2008ko urtarrilak 26, larunbata)

Azken orduko berriak WEB GUNEAN: [www.euskobarca.com](http://www.euskobarca.com)

**Bidali posta elektronikoa bat zeure helbidearekin, oraindik aldizkari hau formatu digitalean jasotzen ez baduzu**